

ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRU – LAGUNTZAK 2019



Diru-laguntza eskatzeko baldintza hauek bete behar dira:

- Errotulua zuzen idatzita egongo da edo ez du izango akats gramatikalik.
- Izen propio, toponimo, akronimo eta abizenak soilik adierazten dituzten errotuluek eta gainerako elementuek ez dute diru laguntzarik jasoko.
- Establezimendua Donostiako Udalerrian kokatuta egon beharko da.
- Eskatzaileak Udalaren kontrol eta egiaztapen lanak erraztu beharko ditu.
- Kontuan hartuko da jendeak irakurtzeko moduan jarrita dauden barneko kartel eta seinaleztapenak ere euskaraz idatzita egotea.
- Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean errotuluan, euskararen presentzia gutxienez gaztelaniaren parekoa izango da.
- Euskara hutsez egindako errotuarengatik diru laguntza ematen denean, kontuan izango da establezimenduaren kanpo errotulazio osoa. Beste errotulu bat edo gehiago badu euskara ez den beste hizkuntza batean, kanpo errotulazio osoan euskarak duen presentzia aztertuko da eta horren arabera emango da diru laguntza.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Euskara Zerbitzuak luzatutako eskabide orria
- Nortasun Agiria NAN edo agiri baliokideren batean fotokopia (pasaporte, egoiliar-baimena) edo IFK agiriaren kopia.
- Fakturaren originala eta ordainketa agiriak.
- Elementua jarrita dagoela frogatzen duen argazkia: elementu bat baino gehiago denean, guztiena aurkeztu behar da.
- Zerga ordainkizunetan egunean dagoela egiaztatzeko agiriak.



Diru-laguntzetatik kanpo geratuko dira:

Azaroaren 17an onarturiko diru laguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonak ezingo dituzte jaso diru laguntza hauen onurak.

Diru-laguntza horiek eskatzeko:

www.donostiaeuskaraz.eus, www.merkatari.eus eta www.donostia.eus webgunetan eskuragarri dago eskaera orria, baita Euskara Zerbitzuan ere (Konstituzio plaza, 2 behe).

Lekua: Euskara Zerbitzua, Konstituzio plaza, 2 eta Udalinfo bulegoetan.

Euskara Zerbitzuaren ordutegia: 9:00-14:00 / Tel.: 943 48 37 50

Epea: 2019ko abenduaren 31 arte (baldin eta dirua lehenago agortzen ez den).

Informazio gehiago: San Sebastian Shops 943 09 09 38 / 645 460 476